

Gernika "Afrikako immigrazioaren errealitate gordina Bakearen Museoan ikusgai"

Atzo zabaldu zuten Bakearen Museoan legez kanpoko etorkinen harreraz arduratzen den Cepaim Fundazioak prestatutako ' Agindutako ibilbidea ' aldi baterako erakusketa. Ekainaren 28ra arte egongo da ikusgai. Erakusketa Afrikako kostaldetik Espainiara legez kanpoko bidaia egiten dutenek sortutako immigrazio fenomenoaren inguruan Cepaimen egindako azterketan oinarritua dago.

Parte-hartzean oinarritutako erakusketa horren helburua ikusleak, eta batez ere gazteak, Afrikako legez kanpoko immigrazioaren zergatiekiko sentikor bilakatzea da.

Cepaimen kideen esanetan, berau hausnarketa bultzatzeko espreski diseinatutako erakusketa da, eta izaera didaktikoa ere badu.

Iratxe Momoitio Bakearen Museoko zuzendariak, Rosalia Guntin Cepaim Fundazioko zuzendariordeak, Daniel Lavella erakusketaren arduradunak eta Esperanza Garcia erakusketaren komisarioak parte hartu zuten atzoko aurkezpenean.

Bost ataletan banatua

Erakusketa bost ataletan banatua dago. ' Iraganaren eta orainaren puskak ' izeneko atalean, adibidez, panelen bitartez azaltzen da Afrikako immigrazioaren historia. ' Zenbakien aurpegia ' delakoan, berriz, legez kanpoko bidaia egin duten etorkinen irudiak eta kontakizun pertsonalak azaltzen dira. Erakusketaren beste atal batek, berriz, gaiaren inguruan Afrikako zenbait intelektualek esandakoa biltzen du.

' Desioak zugandik gertu ' atalak erakusketa bisitatzen dutenek immigrazioaren gainean dituzten desio edota gurariak biltzen ditu. Kasu honetan Madrilgo (Espainia) erakusketako ikusleek adierazitakoa irakur daiteke. Erakusketa ibiltariaren hurrengo geltokian, berriz, Bakearen Museoan erakusketa ikusi dutenek adierazitakoa irakurri ahal izango da.

Erakusketak irauten duen bitartean Daniel Lavellaren ' El lobo de los cuentos ' eta Oier Plazaren eta Dani Asuaren ' Bizi naizen lekutik ' film dokumentalak proiektatuko dituzte. Bisitariak erakusketaren gaineko balorazioa egin ahal izateko Cepaim-eko kideek fitxa bereziak jarri dituzte eskuragai erakusketa gelan.

Erakusketak irauten duen bitartean immigrazioaren gaineko tailer bereziak egiteko asmoa dutela adierazi dute Bakearen Museokoek.

Integraziorako tresna

Etorkinen integrazioa da Cepaimen helburuetako bat. Hori lortzeko erakusketa hau tresna garrantzitsua da, azaldu zuen Guntinek atzoko aurkezpenean. Izan ere, etorkinen integrazioa bultzatzeko Cepaimen aurrera daraman sentsibilizazio kanpainaren baitan kokatzen da erakusketa. Urtebetean egindako azterketaren emaitza bisuala da. Azterketa egiteko gehienbat Magrebetik eta Afrika mendebaldetik etorritako 167 etorkini elkarrizketak egin genizkien, azaldu zuen Lavellak. Heldu eta ikasle askok erakusketa bisitatzea aurreikusten dutela adierazi zuen Momoitiok atzo.

danel lauzirika